

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2284

IRAGARKIA, 2022ko apirilaren 28koa, Industria Administrazioaren Gipuzkoako lurralde-ordez-kariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita 132 kV-ko ZB Abadiano TA-Azpeitia TA linea elektrikoaren Elgoibar TA transformazio-azpiestaziorako sarrerak aldatuko direla Elgoibarko udalerrian.

Martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuak 10. artikuluan (2020-04-24ko EHAA) eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuak 144. artikuluan (2000-12-27ko EHAA) ezartzen dituzten ondorioetarako, eta testuaren azken xedapenetako lehenengoan, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1957ko apirilaren 26ko Legearen Erregelamenduaren 17. artikuluan eta Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53. artikulutik 56.era (2013-12-27ko BOE) ezarritakoarekin bat etorritz, jendaurrean jartzen da instalazio hori, baita eskatzaileak nahitaez desjabetzekotzat jotzen dituen ondasunen eta eskubideen zerrenda zehatza eta banakoa ere:

Esp.: 20-AT-Y-2021-00108.

– Eskatzailea: I-DE Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U.

– Kokalekua: Elgoibarko udalerria.

– Aurrekontu osoa: 545.326,06 euro.

– Xedea: Abadiano-Azpeitia 1 eta 2 linearen 132 kV-ko sarrerak eta irteerak egokitzea, manio-bragarritasuna eta eraginkortasuna handitzeko eta, horrela, mantentze-lanak errazteko eta, matxura gertatuz gero, eragina gutxitzeko.

– Jardueraren funtsezko ezaugarriak: egungo 132 kV-ko linea elektrikoaren (Abadiano-Azpeitia 1 eta 2 zirkuitu bikoitza) lau zirkuituak, bi sarrerako eta bi irteerako zirkuituak, lurrazpira igarotzea.

– Proiektuak ukitzen dituen ondasunak eta eskubideak: iragarki honen eranskinean zehaztutakoak.

Onura publikoaren deklarazioa, aurretiazko administrazio-baimena eta eraikitzeke administrazio-baimena eskatzen dira.

Horren berri ematen da guztiek jakin dezaten, eta dokumentazioa aztertzeke aukera izan dezaten Industria Administrazioaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan (Easo 10, 1. solairua, Donostia), Elgoibarko Udalean edo webgune honetan: <https://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu/>. Egoki iritzitako alegazioak bi aletan aurkeztu beharko dira Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritza honetan, gehienez ere 20 eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2022ko apirilaren 28a.

Industria Administrazioaren Gipuzkoako lurralde-ordezkaria,
AGUSTIN AROSTEGI ARTETXE.

2022ko maiatzaren 26a, osteguna

ERANSKINA
AIRETIKO ZATIA

Udalerria	Finka	Katastro datuak		Titularra	Helbidea	Afezioa						
		Poligonoa	Lurzatia			Linearen luzera (m)	Bide eskubidea (m ²)	Euskarri zk.	Lurrak (m ²)	Aldi baterako okupazioa eta sarbideak (m ²)	Moztea/Inaustea (m ²)	Izaera
Elgoibar	1	19	17	M. ^a Cruz Arrieta Cendoya	Azkue (San Roke) auzoa 9 (CS (Elgoibar) 20870 Gipuzkoa	105	689	1 (badago) / 77N / 0N	117	1588	-	Nekazaritza
Elgoibar	3	19	49	M. ^a Cruz Arrieta Cendoya	Azkue (San Roke) auzoa 9 (CS (Elgoibar) 20870 Gipuzkoa	7	17	76 (badago)	-	100	-	Nekazaritza

2022ko maiatzaren 26a, osteguna

LURPEKO ZATIA

Udalerría	Finka	Katastroko datuak		Titularra	Helbidea	Zortasuna				Aldi baterako okupazioa (m ²)	Izaera
		Poligonoa	Lurzatia			Kanalizazioa		Erregistroak			
						Luzera (m)	Azalera (m ²)	Zk.	Azalera (m ²)		
Elgoibar	1	19	17	M. ^a Cruz Arrieta Cendoya	Azkue (San Roke) auzoa 9 (CS Kurutze) (Elgoibar) 20870 Gipuzkoa	59	153	AT-01 / AT-02	4	380	Nekazaritza
Elgoibar	2	4784089		I-DE Redes Eléctricas Inteligentes, SAU	San Adrian etorbidea 48. 48003 Bilbao	2	10	-	-	7	Industrialia